

Games Academy

Bestalde, ekainaren 30ean Games Academy hasiko da Amurrion, F2P Campuseko herritar ororentzako programa. Amurrio Bidean garapen agentziarekin lankidetzan, bigarren urtez, bi lantegi antolatu dira bideo jokoak egiten ikasteko, aldez aurreko ezagutzarik gabe. Lantegiak 14 urtetik gorako gazteentzat dira, eta ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean egingo dira, Refor-en instalazioetan. Helburua da Euskadin bideo jokoen industria sustatzea eta gazteen artean bokazio berriak sortzea.

Topaketek bideo jokoen garapenerako hurbilketa erraz eta soila eskainiko dute. Parte hartzaileek beren lehen mailak, mekanikak eta menuak sortu ahal izango dituzte oso tresna bisualak erabiliz, eta, horrela, sektore horrekin lehen harremana izango dute, eta bideo joko bat hutsetik abiatuta egin ahal izango dute. Lantegiak doakoak dira, baina aldez aurretik izena eman behar da Amurrio Bidean-en. Edozein kontsulta egiteko, telefono honetara deitu daiteke: 945891721. Ekainaren 1eko lantegia maila aurreratuagokoa izango da, eta parte hartzaileek gaindituta izan beharko dute hastapen lantegia, aurtengoa edo iaizkoa.

Gasteiz, 2022ko ekainaren 21a.